

ATE IREKIEN ZERBITZUAREN PROTOKOLOAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Olaia Duarte Lopez EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016ko urtarrilaren 27an Pertsonen Zerbitzuetako batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Gure udalak protokolo bat du, tenperatura negatiboko gauetan martxan jartzen dena, kale gorrian lo egiten duten pertsonak hotzetik babesteko. Protokolo honek dioenez, "hotzaldiak" edo meteorologia baldintza bereziki gogorak iragartzen direnean, gauez aterpetzeko zerbitzu bat ireki behar da: *Ateak Zabalik Zerbitzua*, hain zuzen ere. Zerbitzu hau Abegi Etxearen alboan dago eta urtero 200-300 lagunek erabiltzen dute. Esate baterako, 2015ean bederatzik gauez zabaldu zen eta 252 lagunek erabili zuten zerbitzua.

Zerbitzua ireki behar den edo ez erabakitzeko, eguerdiko 12:00etan Euskalmetek ematen duen prebisioa kontuan hartzen da, zerbitzuan parte hartu behar duten profesionalak antolatzeke tartea izan dezaten.

Urtarrilaren 25tik 26rako gauean zero azpiko tenperaturak izan genituen (-2 gradu), baina ate irekien zerbitzua ez zen ireki. Urtarrilaren 27ko batzordean zinegotzi ordezkariak aipatu zuen 12:00etan Euskalmeten iragarpena ez zela zero azpikoa eta horregatik ez zutela protokoloa martxan jarri. Aipatu beharra dago urtarrilaren 25ean Aemetek tenperatura negatiboak iragarri zituela gure kostaldean.

Zinegotzi-ordezkariaren iritziz, Udal Gobernuak ez du akatsik egin eta protokoloa ondo bete da, nahiz eta urtarrilaren 25eko gauean -2 graduko tenperaturaz jendea kale gorrian gelditu zen. Gure ustez, ezin da esan gauzak ondo atera zirela protokoloak helburua bete ez bazuen; hau da, hotzaldietarako protokoloaren helburua pertsonen babesa ematea da, tenperatura negatiboen aurrean, eta, argi dago, urtarrilaren 25eko gauean ez zela helburua bete.

Horregatik uste dugu gogoeta baten beharra dagoela, horrelako akatsak gerta ez daitezen neurriak jartzeko. Halako asmorik ez du azaldu, orain arte, Udal Gobernuak.

Egoera hau kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du:

1. Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari berrikus dezala *Ateak Zabalik Zerbitzua* abian jartzea zehazten duen jarduketa protokoloa, eta berrikuspen hau zerbitzuan parte hartzen duten langile eta teknikariek egin dezala.

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.eus -
20003 Donostia

2. Udaltzakerak eskatzen dio Udal Gobernuari neurriak jar ditzala protokoloaren helburuak behar bezala bete daitezzen -hau da, tenperatura negatiboekin zerbitzua irekita egotea- eta horretarako, kontuan har dezala Aemet, Meteofrance eta Euskalmetek egindako iragarpenen artean tenperaturarik baxuena.

Donostian, 2017ko otsailaren 17an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia